

Errefuxiatu txikia eta haren laguna

JOSEP M. FOLCH I TORRES

(Jatorrizko titulua: «El petit refugiat i el seu company», *En Patufet*, 1936ko urriaren 30a)

MANU LOPEZEK ITZULITA



Eguerdi hartan obratik itzuli zenean, Bartzelonara iparraldeko frontetik iritsitako umeetako bat hartzeko asmo ona buruan zebilkiola heldu zen.

Bazkalorduan, lankide batek egunkarian ozenki irakurria zuen ume haien etorreraren albistea, eta ideia eskuzabal eta sentituak bat-batean hartu zion adimena.

—Gustura hartuko nuke horietako bat! —oihukatu zuen, samurtasunezko beroaldian.

Hobe hitz egin ez balu! Haren atzean, peoi isil batek, inoiz ahoa zabaldu ere egiten ez zuenak, burua jaso eta esan zuen:

—Esanda dago! Ni ere baten bila joango naiz.

Eta horren atzetik beste batek, eta beste batek, onberatasun-lehian, eginbehar sakratu bat burutu behar duenaren erabakitasun zintzoarekin.

Roc Dallau-k, ideia bota zuen igeltseroak, eskuko hatzekin kontatzen hasi zen, eta laster ez zuen nahikoa hatz ez eta nahikoa esku denak kontatzeko.



—Ni ere bai! Ni ere bai!
—adierazten zuten batak bestea-
ren ondoan, denek aldi berean
egiten ez zutenean.

—Nik ez dut arazorik bat
hartzeko, umerik ez dut eta
—esan zuen orgazainak.

—Nik ez dut arazorik bes-
te bat hartzeko, jadanik bost
ume ditudan arren —Joan
«korapilos»en erantzuna, hala
deitua aldamioetako sokak lo-
tzen zituen zelako, guztien
konfiantzazko gizona baitzen.

Roc-ek ume bat zuen; hala
ere, Joan «korapilos»en antzera, dozena erdia izanda ere berdin jokatu-
ko zuen.

Esan bezala, eguerdi hartan oso gogotsu iritsi zen etxera.

—Zer diostazu, Laieta? —oihu egin zuen jangelara sartu orduko.

Emakumea sukaldetik irten zen, erabilitako doinuagatik Roc-ek berri-
ren bat zekarrela antzemanetz. Eta Cisquet umeak ere, olibondo-adar bat
baino korapilatsuagoa zen aditz irregular bat ikasten ziharduela, burua
jaso zuen, jakin-minez.

—Iparraldeko frontetik iritsitako ume horietako bat etxean hartzeko
hitza eman dut —azaldu du Roc-ek.

—Ondo egina —Laietaren berehalako oniritzia, bere Cisquet-i begira,
beren umeengandik aldendu behar diren amen pena gogoan—. Ondo
egina, Roc. Ideia ona izan duzu. Ondo dago elkarri laguntza ematea.

Eta, semearengana jiratuz, diotso:

—Pozik egongo zara, Cisquet, lagun bat izateaz? Bat-batean anaia bat
heldu balitzaizu bezala izango da.

Cisquet-ek baietz dio buruaz, mugimendua konpromisoazko irribarre
batez lagunduz.

Pozik zegoen, jakina; hala ere, egia esatera, oso-oso pozik ere ez ze-
goen. Esan daiteke mutil ezezagun bat etxera etortzea berarekin dena
partekatzeraz ez zuela guztiz gustuko.

Eta ez zen janariaz ari, noski, ez eta bere gauzez, liburuez, jostailuez,
kromoez ere; horrelako kontuei zegokienez Cisquet ez baitzen zekena, ez
berekoia ere. Gehien kezkatzen zuena, beharbada, ordua arte bera jaun
eta jabe izandako etxe hartara beste ume bat bizitzera etortzea zen, eta
gurasoen maitasuna, oso bereziki amarena, berarekin partekatu beharra
zen. Ama umoretsu eta atsegin hark, izan ere, lore-sorta baten gisa era-

man zuen beti eta, seme bakarrekin gertatu ohi denez, biziaturea zuen betidanik.

Hala ere, aitek gerraren izugarrikeriak gertutik ikusi dituzten ume errugabe horien tragedia azaldu duen neurrian, lagun ezezagun horiekiko begikotasun eta samurtasun sentimendua hasi da Cisquet-ez jabetzen. Seme bakarreko arimatxoan gordetako berekoikeria inkontziente txiki haiek deseginez doaz, eguzki izpien epelak laztandutako izotz puska bat urtzen den era berean.

Bazkaldu eta berehala, hirurak, aita, ama eta semea, errefuxiatu txikiaren bila abiatu ziren, eta handik pixka batera etxera bueltan zetozen, gutxi asko Cisquet-en adin bereko mutiko batekin. Cisquet baino zurbilagoa eta argalagoa zen, eta handiegi geratzen zitzaion jaka batez jantzita zihoan; burua estaltzen zion txapel urdinak, berriz, agerian uzten zituen penintsularen iparraldeko arrazaren ezaugarri diren bekoki zabala eta begi gogoetatsu sakonak, aurpegiera noble hari itxura serioa ematen ziotenak.

Kanpotar umea Laieta eta Cisquet artean zebilen, berarentzat ezezaguna zen hiri hartako mugimenduak eta zalapartak aztoratu samartuta.

Paraleloa gurutzatzean, Cisquet-ek nabaritu zuen errefuxiatu txikiaren eskuak estu heldu ziola bereari, izu-ikara batez.

—Zer duzu? —galdetu dio.

Umeak ez zuen erantzun, baina burua alde batetik bestera zihoakion klaxon joaldi bakoitzeko edo aldamenetik ziztuan pasatzen zitzairen automotorren burrunba bakoitzeko.

—Ez izan beldurrik —esan zion Cisquet-ek, kanpotar txikiaren esperimentzia faltak harrarazten zion babesle-paperarekin harrotuta.

Harengana hurbilduz, lagunkoi, etxean ibil-tzeko moduko gaztelania batez, galdetu dio:

—Nola esan duzu deitzen zarela?

—Evaristo Arraga —erantzun zuen.

—Hortaz, ez izan beldurrik, Evaristo. Eskua askatzen ez badidazu, ez zaizu ezer gertatuko.

Euskaldun txikiak irribarrez begiratu dio, esan nahian bezala: «Beldurra, nik?»





Errepidea gurutzatuta espaloia berriro zapaltzean, kanpotarraren beldurrak harridura edo jakin-min sentimendu ulergarri bati egina zion tokia, eta galde eta galde hasi zen, azalpenak eman beharrak Cisqueti eragiten zion gozamenaren jakitun balitz bezala.

Laster Cisquet eta Evaristo oso adiskide onak izango ziren. Ume baten ariman bizi daitezkeen ezaugarri noble guztiak azalduz zihoazen Cisquetenean, bizitzen ari ginen tragedia izugarriak ondoan jarri zion lagun on harekin kontaktuan.

Prestutasuna, eroapena, altruismoa, eskuzabaltasuna, seme bakar haren espirituan ezin praktikan jarritz ordue arte sor egondako bertute haiek guztiak bat batean agertu zitzaizkion bihotzetik, mutila hobetzeko eta gizakiago egiteko.

Haren jostailu guztiak, haren abentura-liburu guztiak, Cisquetek sakelan edo mesanotxeko tiraderan gordetzen zituen gauzatxo preziatu guztiak: arkatz automatikoa, zorrozkailua, F.C. Barcelona-ren ikurra, ohar-kaiera, den-dena jarria zuen errefuxiatu txikiaren eskueran, borondate osoz eta inolako erreserbarik gabe.

Bularraren barruan pizten zitzaion eta samintasunez betetzen zuen jelsia sentimendu hura menperatu eta garaitzeko borondate-ahalegin handia egin behar zuen egokiera bakarra, berriz, amak Evaristo laztantzen zuenetan edo haren azalpenak hunkiturik entzuten zizkionetan izaten zen.

Egun batean, Cisqueten amak egindako galderei erantzuten ari zela –izan ere, galdeketa egin ezean Evaristo ez zen gehiegi hitz egiteko zalea–, errefuxiatu txikiak bere bizitzaren tragediaren berri eman zuen: amaren, munduan zeukan gauza bakarraren, bat-bateko heriotza, eta haren lagunartea gehien behar zuenean pairatu behar izan zuen bakardade tristea; gerra ankerrak herri osoa suntsitua zuen eta bera babestuko zuen gonarik gabe geratu zen kanoikaden hots ozena espazioan entzun eta etxe osoa zimenduetatik teilaturaino dardarka jartzen zutenean.

Eta ama inon ez. Berak oihuka deitzen zion, baina inork ere ez zion erantzuten...

Kontakizunaren erdian Evaristo trabatu egin zen, ahotsa ahuldu egin zitzaion eta ezpainak dar-dar egiten zioten.

Orduan, Cisqueten ama, biziki hunkituta, bat-batean altxatu eta Evaristorengana oldartu da bere besoen artean babestera, adierazi nahian ez zela uste zuen bezain umezurtz eta babesgabea; hala ere, harengana iritsi baino lehen, Cisquetek, amaren asmoa igarrita, aurea hartu zion eta bera izan zen laguna besarkatu zuena, bihotzez eta hunkituta, bai, baina baita amaren besarkada saihesteko asmo sekretuarekin.

Geroztik Cisquetek gertakizun haren harra eraman du; izan ere, azken batean, asko estimatzen zuen Evaristo, eta damu zen bere maitasun osoa ezin emanaz.

Batzuetan, balkoiko kristalei begira pentsakor, pentsamendu nostalgikoetan murgildurik ikusten zuenean, Cisquet pixkanaka hurbiltzen zitzaion, haren ondo-ondoan jarri arte; orduan, besoarekin lepoa inguratuz, beregana erakarri eta esaten zion eztiki:

—Baietz asmatu zer pentsatzen ari zaren!

Eta errefuxiatua gorritu egiten zenez, edo irribarre egiten zenez, begi malenkoniatsu haiekin begira-begira, Cisquetek esan egiten zion:



≈ Hitzontzi ≈



—Zeure herria, eta zeure mendiak, eta hango lagunak dituzu go-goan... Asmatu dut, ez da egia?

Evaristok baietz egiten zuen buruaz, norbaitek bere herria eta bere gauzak aipatu izanagatik pozik, horixe baita herriminez bizi denari egin dakioken oparirik onena.

Eta jarraian, ia belarrira, Cisquetek gaineratu zuen:

—Eta beste zera ere pentsatzen ari zinen... nahi duzu esatea?... Zure amarengan ere pentsatzen ari zinen. Asmatu dut, ez da egia?

—Bai... asmatu duzu —aitortu zuen Evaristok—. Horretan pentsatzen ari nintzen.

Isiltasun uneak ere baziren. Noizean behin Evaristok burua jaso eta adiskideari so egiten zion eskerronez betetako begiradaz, ama hizpidera ekartzeko ausardia izan zuelako.

Eta Cisquetek, hala ulertuta, era guztietako galderak egiten zizkion orduan: altua ote zen, beltzarana ote zen, nola zuen izena... Dena, hari buruzko solasaldia ahalik eta luzeen egitekotan, Evaristok hari buruz hitz eginez topatzen zuen gozamen eta kontsolamendua luzatzeko.

Mahaian zeudela, Cisquet adi egoten zen beti, adiskidea min zezakeen ezer ez gertatzeko, eta bere platerekoa eskaintzen zion, haren janaria baino gustukoagoa bazuen ere.

Adiskidearekiko begirune eta atentzio haiekin guztiekin Cisquet bere kontzientzia lasaituko balu bezala sentitzen zen, ama Evaristorengana hurbiltzen ikusten zuen bakoitzean erasotzen zion, eta haien arteko adiskidetasuna osoa eta guztiz benetakoa izatea galarazten zion jelsia eutsiezin hura salatzen zion kontzientzia bera.



≈ Hitzontzi ≈

Jakin gabe ere, Cisquetek sentitzen zuen adiskidetasuna bezalako gauza batzuk erabatekoak izan behar zirela.

Horrexegatik, batzuetan Evaristok haren onberatasuna aitortzen zionean, Cisquetek ezin zuen hala sentitu eta gorritu egiten zen, eta ez zuen uste bere lagunaren eskerrona merezi zuenik.

Harik eta, azkenean, adiskidetasun sentimendua garaile atera zen berekoikeria guztien gainetik, modurik sinpleenean gainera.

Igande batean izan zen, bazkalostean. Roc-ek, ohi bezala, zentro aldera joan zen kafea hartzera eta bere lagunekin egotera.

Emaztea eta bi adiskidetroa etxean geratu ziren. Mahaia garbituta eta jangela jasota, Evaristo eta Cisquet hasi ziren Cisqueten kromo eta seilu bildumarekin jolasten.

Beti bezala, Evaristok zerbaiten goraipamena egiten zuen bakoitzean, edozer zela ere, Cisquetek berehala erantzuten zion:

—Hartu zeuretzat, eman egiten dizut.

Eta Evaristok onartu ezin zuela esan arren, Cisquetek hainbeste ekiten zion, azkenean besteak onartu egin behar baitzuen Cisquet haserretu ez zedin.

Arratsalde hartan bereziki, Cisquet hain eskuzabal sentitzen zen, denbora gutxian Evaristoren sakelak gainezka bete baitziren, Cisquetek, nahitaez, adiskideak gustuko zuen guztia patrikaratzen ziolako, hala nola Europako hiri nagusietako iruditxoek bilduma, soilik Evaristok esan zuelako:

—Oso politak dira. Asko gustatu zaizkit.





—Orduan zureak dira jada! —erantzun zion Cisquetek berehala.

Eta Evaristok onartu nahi ez zituenez, Cisquetek berak sartu zizkion sakelan, esan dugun bezala:

—Zeuretzat gordetzeko esan dizut, eta kito.

Gauza bera egin zuen publizitate-etxe bateko karteratxo batekin, eta aldi berean egutegia eta ohar-koadernoak zen liburuxka batekin, eta burdina-harizko jostailu japoniar hain ondo pentsatutako harekin, eratzun handi bat eratzun txikiago batetik pasaraztea helburu zuena...

Gero, Cisquetek bere margo-kutxa ekarri zuen, eta atzeratutako aldizkari batzuetako marrazkiak margotzen hasi zen. Oso zeregin jostagarria zen, eta Evaristok interes handiz pozik begiratzen zuena, komiki bateko pertsonaiak zegozkien tonuekin koloreztatzen ikustea, batez ere karikatura bat baldin bazen.

—Jarriozu gorri gehiago sudurrean —proposa-tzen zuen Evaristok.

Cisquetek egin egin zuen, eta ezin izan zion barreari eutsi.

—Gustukoa duzu honela margotuta?

—Bai, oso.

Berehala Cisquetek margotutako marrazkia ebaki, eta eman egin zion.

—Orain zure txanda da —eskaini zion bat-batean, pintzela, margo-kutxa eta aldizkariak eskainiz.



Cisqueten ama begira zegoen, irribarrez.

—Ez dakit nork egiten dion mesedea nori —esan zuen emakumeak, semeak lagunartea zuenetik zein ondo pasatzen zuen ikustez poz-pozik.

Hura entzutean, Cisquetek burua bueltatu eta ama ikusi zuen erre-fuxiatu txikiari begira, begiak argitzen zizkion samurtasunez.

Cisquetek astinaldi gogor bat nabaritu zuen bularraren barruan, eta aurpegira joan zitzaion beroaldi batek begiak lausotu zizkion. Orduan, zertan ari zen ez zekiela, Evaristori eskaini berri zizkion margo-kutxa eta gainerako guztia ken-tzeko mugimenduari hasiera eman zion.

Une hartan bertan, baina, Evaristoren ahotsak esan zuen:

—Margotu zeuk, nik ez nuke jakingo eta.

Halako apaltasunak, Laietaren oniritzi keinu bat eragin baitzuen, areago asaldatu zuen Cisquet.

—Ez dut nahi! Zeuk margotzeko esan dizut —erantzun zuen orduan Cisquetek, nahi gabe bortitza atera zitzaion tonuan.

Eta berriz ere kutxa aurrean eta pintzela eskuan jarrita, errepikatu zion:

—Ea, tori pintzela. Hartzeko esan dizut.

Evaristo zer egin ez dakiela dagoenez, Cisqueten amak hitz egin zuen, adeitsu esateko:

—Har ezazu, Evaristo; hartu lasai. Ez duzu ikusten pozik ematen dizula?

Eta Evaristoren erantzuna, berehala:

—Horrexegatik, hain zuzen; den-dena ematen dit, eta azkenean haren gauza guztiak izango ditut, eta hura ezer gabe geratuko da.



—Nor, ni, ezer gabe? —esan zuen orduan Cisquetek, distira bitxi bat begietan.

Eta, amarengana jiratuz, musu bat ematera joan zen eta besoeekin lepoa inguratuz esan zuen:

—Horrek ez dit axola, ama dut eta!

Gero, adiskideari hozkia eragitearekin plazera topatuko balu bezala, nolabaiteko garaipen itxurarekin begiratu zion.

Berehala, ordea, harriduraz eta larriduraz paralizaturik geratu zen. Hantxe zegoen Evaristo, mahaiaren ondoan, izugarri zurbilduta, begirada samurtasun-eszena hartan finkatuta. Ama hilaren oroimena gogora etorri berri zitzaion. Cisquetek irakurri egin zuen, adiskidearen kopeta kristalezkoa bailitzan, eta ia lotsatu egin zen bere buruaz eta ama izatearen pribilegioaz.

Une hartantxe ohartu zen Evaristoren begiei —bere burua menperatzeko egiten ari zen ahalegina eginda ere— malko bana zeriela.

Berehala, Cisquetek, amaren ondotik mugitu gabe, oihu egin zion Evaristori, erdi barrez, emozioa disimulatzeko asmoz bezala.

—Ez, ama ez dizut emango, ez; baina, nahi baduzu, biona izango da. Ados?

Eta amaitu zuen:

—Tira, zatoz, motela! Ea nork musu gehiago eman amari!

Eta une bat geroxeago, ama eta bi umeak besarkada handi batean batu ziren.

